

**KONTROL MOZIOA, PARTE ZAHARREAN BIZI  
AUZO ELKARTEAK ETA <ZAHARREAN> PARTE ZAHARREKO KOMERTZIANTEEN  
ELKARTEAK BILTEGIAK ARAUTZEKO AURKEZTUTAKO PROPOSAMENARI EZ  
ERANTZUTEARI BURUZKOA**

EH BILDU udal taldeko zinegotzi Ricardo Burutaran Ferrék, Udalbatzaren Organo Araudiaren 98. artikulua babesean, **KONTROL MOZIO** hau aurkezten dio alkateari, Zaharrea Bizi Auzo Elkarteak eta <Zaharrea> Parte Zaharreko Komertzianteen Elkarteak biltegiak arautzeko aurkeztutako proposamenari ez erantzutea dela eta. 2024ko ekainaren 17an Lurraldearen Garapen eta Planifikazio Batzordean egindako interpelazioaren ondorioz aurkezten da kontrol mozio hau.

**JUSTIFIKAZIOA**

Parte Zaharrea Bizi Auzo Elkarteak eta <Zaharrea> Parte Zaharreko Komertzianteen Elkarteak proposamen bat aurkeztu zioten Udalari ostalaritza eta/edo jatetxe jardueraz saturatuta izendatutako eremuetan biltegiak arautzeko.

Izan ere, Establezimendu Publikoen eta Jolas Jardueren Kokalekuak Arautzen dituen Udal Ordenantzak, 1994ko apirilaren 12koa, eta haren aldaketak, Udalbatzak 2009ko maiatzaren 29ko osoko bilkuran onartua, Parte Zaharra –eta beste eremu batzuk– ostalaritza jardueraz saturatuta jo zituzten.

Horretarako, ordenantza horrek hura ezartzeko jarraitu beharreko baldintzak arautu zituen, eta, besteak beste, gutxieneko distantzia batzuk errespetatu beharra ezarri zuen, bai jatetxe-jarduera berriak ezartzea edo legeztatzea eskatzeko, bai lizentziak aldatzeko edo zabaltzeko eskaeren kasuan (horiek guztiak Udalbatzak horrelako jardueretarako saturatutaz jotako eremu batean baitaude). Hori guztia hirigintza eremu berean horrelako establezimendu gehiegi pilatzeak bertako bizilagunei ondorio kaltegarri gehigarriak sortzen dizkiela egiaztatzen ondoren.

Azkeneko urteotan, ordea, jarduera horien beste kolonizazio modu batzuk ikusten ari gara – Parte Zaharrea, bereziki–: biltegiak irekitzea, ostalaritzako jarduera nagusiari lotuta daudenak, eta horiei bakarrik zerbitzu ematen dietenak.

*Modus operandi* horren bidez, lehen elikagaiak, edariak eta abar biltegitzeko erabiltzen zituzten espazioak libratzen ari dira beren lokaletan, hau da, ostalaritza- edo jatetxe-jardueraren zerbitzu eskusiborako. Hori guztia Parte Zaharrea; gogoan hartu behar dugu lehenago ere horrelako jardueren kontzentrazio handiagatik eremu saturatu izendatu zela. Aldi berean, biltegiak ugaritzeak auzoko merkataritza-espazioak murrizten ditu.

EH Bildu talde politikoa  
Grupo político EH Bildu

---

Ijentea, 1 - Tel. 943481027 - [www.donostia.eus](http://www.donostia.eus) -  
20003 Donostia

Lokal horiek biltegi gisa legez kanpo erabiltzen zirenez, salaketak aurkeztu zituzten bizilagunek; eta harrez geroztik, jakin ahal izan dugunez, azken asteetan horrelako lokalak ostalaritza establezimenduen erabilerarako legeztatzea eskatzen ari dira.

Horregatik, bi elkarteekin bat gatoz gaiari buruzko kezkarekin, eta uste dugu arrazoizkoa eta premiazkoa dela Udalak era horretako jardueren ezarpena behar bezala arautzea, jarduera horiek sortzen dituzten ondorioak kontuan hartuta, eta, araudiaren aldaketa onartu arte, legezko kautelazko neurriak hartzea, egoera konponezina bihur ez dadin.

Hala ere, azaldutako egoera hori premiazkoa izan arren, orain arte, Udal Gobernuak ez die erantzunik eman aipatutako bi elkarten proposamenari.

Horri buruz Udal Gobernuak interpelatuta, Hirigintza Jasangarriko zinegotzi ordezkariak erantzun zigun bat zetozeala salatutako gaiarekiko kezkarekin; izan ere, haien ustez, HAPOa puntualki aldatzeko aukera aztertu behar da, eta horrek aurretiko lan bat eskatzen du, dagoeneko egiten ari direna.

Horregatik guztiagatik, hau sinatzen duen zinegotziak **KONTROL MOZIO** hau aurkeztzen du:

- 1.- Donostiako Udalbatzak Udal Gobernuari eskatzen dio, lehenbailehen beharrezko administrazio-eta lege-urratsak eman ditzala, egoera konponezina izan baino lehen, Parte Zaharreko lokalak ostalaritzako establezimenduen biltegi gisa bakarrik erabiltzeko lizentziak eta/edo baimenak urtebetez eteteko, eremu hori ostalaritza establezimenduz saturatuta baitago.
- 2.- Era berean, Udal Gobernuari eskatzen zaio, bere baliabideak edo kanpokoak erabiliz, HAPOa unean-unean aldatzeko behar diren lanak agintzea erabaki dezala, aldaketa horrek Parte Zaharreko lokalak erabilera-baldintzak arautu ditzan.
- 3.- Era berean, Udal Gobernuari eskatzen zaio Parte Zaharrean Bizi Auzo Elkarteak eta Parte Zaharreko Komertzianteen Elkarteak (Zaharrean) aurkeztutako idazkiari erantzun formala eta arrazoitua eman diezaio.

Donostia, 2024ko ekainaren 20a

**Izpta.: Ricardo Burutaran Ferré,**  
EH BILDU udal taldeko zinegotzia